Emakumea ere, euskal idazle

Gizasemeak azarre omen dira; baiña, itsal, aurten, emakumearen urtea espaizen dugu. Nere iritsis, ederki dago. Irakurri berri dut A. Montagu'ren «*La Mujer, sexo fuerte*» liburua. Ta amerikar idazle au ez da andrazkoai bere eskenika dabillen kasilari bat, etnologo sakona baizik. Eta onek diosunez, *bella donna*, ots, emastekia da, ez gizona, bizitza-arauz —biologiaz— sexu sendoa. Orregatik eskatzen ditu, edo-ta errazais jarrita daude, biontzako eskubide ta betebear berdintsuak.

Idazteari gagozkiolarik, emakumeak ez du, azken urte auetara arte, askorik idatzi; baiña ortarako ostoporik naiko ipini izan zaiekiolako sortatu da orrela. Gaur egunean ortan ere, beste gai askotan bezela, aske ta errime dabilkigu-ta ikaslegarri dugu. Guk euskaldunok ere, gemera moldaturik, izan dingu, ta dingu gaur ere, euskal idazle bizkorrak, gure smesko goratzarrea merezi dutenak. Emen, Bizkai-Gipuzkoa itsas bazterreratz, besteak beste, ta dauzkagu jator eta langilleak: Deba'ko «Tene» ta aspaldidik Durango'n bizi dan Zumaiar Julene. Biak dute arima gozo, bigun, sentikorra, beren idatzi ugarietatik dakigunez.

Azpeitia'tar Julene'ri ezertxo ere kendu gabe, «Tene»'k urte mordoa dala, 1934'an, liburu liri bat argitaratu zigun: «*Miren Itziar'i idazkiak eta olerkiak*». Irakur olerki txikitxo au, emakumeak nolako biotza duen ederki adierazten diguna: «*Nere leyua*» deritzaio.

Nere gelako leyotik
dager ortze zati bat,
berari zor diskat nere
ohtoskun gozoenak.
Nais euskis jantzita egon,
nais odeyez itxiko,
nais illargi geltaus, edo
nais izarrean distiko,
mintzo gozos poshutzen du
nere gogo gaxoa...
Eta bere mintzo zake,
sabaltzen dat leyoa!

Beste olerki xarmant batek onela margozten digu egunsentia:

Egun berriak itsas zabala
margo berriz asaltzean,
ta «Andutz» mendia oni begira
eguzkis jantzien danean,
ta sualtzitik txori-abesak
beren lotatik itsarrita,
baña artzai-mutil itzlartarrak
artaldea mendirantz,
Deba'ren aurrez itsas barean
txalopa dager geldirik,
nola umetxoa bere amaren
magalean lo-arturik.

Emakumearen onesko urtea dugula-ta, guk euskaldunok ere, zerbait egin bear genuke. Oraindiño, euskal literaturan agertzen zaizkigun emakume idazlean lanakin liburu mardul bat osatu. Emaitis eder ta akullu bizkor litzakigu. Egingo ote dugu? Ez da orren zailla. Ta gaur dauzkagun andereño ta olakoentzat eredu bikaiña litzakeke egiteki.

AITA ONAINDIA